



# PMI KONPOSATUA


## Europako ekonomiak hobera egin zuen abenduan, baina ez behar beste

Abenduan, euroaren eremuko PMI konposatua 49,6an kokatu zen, ekonomiaren hazkundera eta uzkurdura bereizten dituen 50eko baliotik oso gertu. Abenduko datuak puntu bat baino gehiago hobetu zuen azarokoa, baina hobekuntza hori ez da nahikoa izan euroguneko ekonomia hedapen eremuan kokatzeko, nahiz eta lortutako mailak iradokitzen duen jardueraren jaitsiera oso txikia dela.


Markiten txostenak adierazten du eskaera berrien etengabeko beherakadak jarduera ekonomiko eta enplegua kaltetzen dituela. Halaber, inflazio presioak areagotu egin dira, eta enpresek etorkizunerako dituzten igurikimenak ahulak dira, nahiz eta hobetu egin diren. Ohikoa den bezala, arazo handienak manufakturretan kontzentratzen dira, eta zerbitzuak, berriz, nolabaiteko intentsitatearekin hazten dira.

### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2024KO ABENDUA  
49,6




### MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



## PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




## PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Europako ekonomiaren bi motor nagusiek ahultasun esanguratsua erakusten dute. Alde batetik, Alemaniak 48,0ko balioa izan du indize konposatuan, eta sei hilabete eman ditu uzkurdua eremuan murgilduta, manufakturen erritmo faltagatik; zerbitzuek, ordea, jarduera suspertu dutela ematen du. Frantziak antzeko profila du (47,5), baina bi sektoreak negatiboan mantentzen ditu. Italiak indarra berreskuratu du (49,7), nahiz eta zalantzak argitu ez dituen.

Aitzitik, Espainia 56,8ra igo da, hau da, 2023ko martxotik izan den baliorik handienera; izan ere, zerbitzuak 57,3an daude eta manufaktura 53,3an, horiek ere hedatzeko eremuan bete-betean sartuta.


## PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



## PMI KONPOSATUA. ITALIA



## PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



Iturria: Markit